



Superheroiak ez ziren Kryptonen jaio



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

AEB, 1933. Franklin D. Roosevelt presidente hautatu berriak *New Deal* (itun berria edo banaketa berria) izeneko programa ekonomiko multzoa jarri zuen abian, 1929ko krakaren ondorioei konponbidea eman nahian. Baina ekonomia altxatzeaz gain, herritarren aldartea ere jaso beharra zegoen, eta eguneroko arazoak ahaztu araziko zizkieten entretenimendu modu merkeak hedatu ziren: zinema, irratia eta komikia.

Komiki tirak solte argitaratu ohi ziren ordura arte egunkari eta aldizkarietan, baina produktuaren arrakastaz baliatuta, komikiak albumetan biltzen hasi ziren. 1933an, *New Deal* abiarazi zuten urte berean, Harry Wildenberg eta Max Gaines, Connecticuteko Eastern Color Printing inprimategiko bi langileri komikien egile eskubideak eskuratu, erraz inprimatu eta kioskoetan merke saltzeko formula bururatu zitzaizen, eta *comic-book*-a sortu zuten, 17x26 zentimetroko liburuxka, 24 eta 32 orrialde bitartekoa, gaur egun oraindik erabiltzen den formatua. 1934an argitaratu zen lehena, *Famous Funnies* izenburukoa.

Euskarria erabakita, eduki berriez hornitzeko garaia heldu zitzaizen komikiari. 1936an Lee Falkek *The Phantom* sortu zuen, superheroiaren aitzindaria. Gainerako gizakiak baino askoz indartsuago izanik ere, heroi horrek oraindik ez zeukan superboteririk. Handik bi urtera, 1938ko ekainean Joe Shuster eta Jerome Siegel argitara eman zuten "altzairuzko gizonak", aldiz, bai. Supermanen lehen komiki hartan horrela aurkezten zuten superheroiak: "Zapalduen txapelduna. Bere existentzia osoa beharra dutenei ematea zin egin duen miraria".



Duela 90 urte, Roosevelten *New Deal*-rekin batera, lehen *Comic-book*-ak sortu ziren, eta, berehala, komiki-liburu horiek beteko zituzten superheroiak ere iritsi ziren, depresio handiari aurre egiteko.

IZERDI TAILERRAK

Hasierako superheroi haiek kontzientzia soziala zuten: emakumeei tratu txarrak ematen zizkieten aurka egiten zuten, poliziaren gehiegikerien aurka, langileak zapaltzen zituztenen aurka... Baina gidoilariak eta marrazkilariek ez zeukaten beren lan eskubideak defendatuko zituen superheroiak. Depresio Handian komikilariek langilez lepo zeuden aireztapenik gabeko bulegoetan jarduten zuten ordu luzez; *sweatshops* edo izerdi tailerrak esaten zieten zulo haiei. Lluç Casals historialari kataluniarrak *Sapiens* aldizkarian azaldu bezala, fordismoa komikiaren mundura ere iritsi zen. Baldintza kaxkar haietan aritu ziren, bestek beste, Batmanen sortzaile Bob Kane eta Jack Kirby, Spidermanen ilustratzailea, superheroiaren komikien urrezko aroko egile nagusietakoak.

Aro horren distira Gerra Hotzak itzali zuen. Fordismoa lehenago bezala, McCarthysmoa iritsi zen komikietara 1950eko hamarkadan. Fredic Wertham psikiatrak, *Seduction of the Innocent* (1954) lanean esan zuen komikiek gazteen delinkuentzia eta desbideratze sexuala bultzatzen zutela -Batman eta Robin homosexualak ziren eta Wonder Woman, lesbiana-. Comic Code Authority delakoa sortu zuten, edukiei buruzko arau zorrotzak ezarri eta betearaziko zituen. Zenbaitetan komikien erretze publikoak ere egin zituzten.

Superheroiak bizirik atera ziren kinka larri hartatik ere. Gaur egun osasuntsu daude eta borrokan jarraitzen dute... elkarren aurka. Marvel eta DC komiki industriako erraldoiek hamarkada asko daramatzate lehia, negozioaren banaketa ongiaren eta gaizkiaren ginetik baitago. ●